

5. Pasabidea: Gipuzkoa Etorbidea 5 (San Antonio)

Pasabide honetan dagoen semaforoa Gipuzkoa Etorbideko 16-18an dagoen oinezkoen pasabidearekin sinkronizatuta dago, beraz, semaforo honen funtzionamendu-denbora aldatzeak aipaturiko pasabidekoan eragingo luke.

Pasabide honetan oinezkoek espaloi bien artean gurutzatu beharreko distantzia 9 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu-denbora 18 segundo dira.

Oinezkoak pasatzeko argi berdez egun dagoen denbora 20 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 83 segundo.

Ibilgailuen kasuan, argi berdez pasatzeko duten denbora 74 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 24 segundo.

Pasabide honetan oinezkoak pasatzeko dagoen denbora nahikoa dela irizten da, zeren pasabide honetan pertsona asko ibiltzen den arren joan-etorrian, normalean ez da jendetzarik pilatzen.

Pasabide honetan instalatuta dagoen ekipoa zaharra da eta ezin dira ordutegi ezberdinak ipini lanegunetarako eta asteburuetarako.

